Zubi mugigarriaren jarduketa horri buruzko azterlan eta proiektu teknikoak egiteko, bai eraikuntza mailan, bai ondorengo ustiapen eta mantentzeari lotutako zehaztapenetan, nahitaez kontuan hartu beharko da itsasadarraren ibilguren nabigagarritasuna une oro ziurtatzea portu-jardueran, baita itsas segurtasunaren, seinaleen eta balizamenduaren arloko neurri egokiak ere, hori guztia organo eskudunek, Bilboko Itsas Kapitaintzak eta Bilboko Portuko Agintaritzak ezarritako irizpideen arabera.

2.3. Hitzarmen hau garatzeko eta gauzatzeko aurreikusitako edozein jarduerari eta proiektuari ekin aurretik, honako hitzarmen honetan ezarritako Jarraipen eta Kontrol Batzordeak horietako bakoitzaren alde aurreko onarpena lortu beharko du. Hori guztia, dagozkien eskumenak dituzten sektore-administrazioek jarduera eta proiektu horiei buruz arauz egin ditzaketan alde aurreko onarpenei edo hitzarmen honetan horri buruz adierazitako balizko aurreikuspenei kalterik egin gabe.

2.2. Respecto a la segunda de las actuaciones objeto del presente Convenio, la relativa a la construcción de un puente-móvil entre los municipios de Erandio y Barakaldo que permita el establecimiento de una nueva conexión ciclista y peatonal entre ambas márgenes de la Ría de Bilbao, se prevé la configuración inicial, a falta igualmente de los estudios y proyectos técnicos que la concreten y de las determinaciones que en tal sentido finalmente establezcan las diferentes Administraciones y órganos sustantivos correspondientes en relación a sus recíprocas competencias, de una sección tipo dispuesta básicamente por un Paseo Peatonal (2,5 m) y una Bicipista (3,5 m).

La elaboración de los estudios y proyectos técnicos referidos a esta actuación del puente-móvil, tanto en su configuración a nivel constructivo como en sus determinaciones vinculadas a su posterior explotación y mantenimiento, deberán tener obligatoriamente en cuenta el aseguramiento de la navegabilidad en todo momento del cauce de la Ría para la actividad portuaria, así como las oportunas medidas precisas en materia de seguridad marítima, señalización y balizamiento, todo ello bajo los criterios que se establezcan por los órganos competentes, la Autoridad Portuaria de Bilbao y la Capitanía Marítima de Bilbao.

2.3. Antes del inicio de cualesquiera de las actuaciones y proyectos de intervención previstos en desarrollo y ejecución del presente Convenio, deberá obtenerse la aprobación previa de cada una de las mismas por parte de la Comisión de Seguimiento y Control establecida en este Convenio, todo ello sin perjuicio de las aprobaciones previas que normativamente pudieran corresponder en relación a las mismas por parte de las distintas Administraciones sectoriales con competencias concurrentes o de las eventuales previsiones indicadas al respecto en este Convenio.

HIRUGARRENA.- ALDERDIEN KONPROMISOAK HITZARMENAREN XEDE DIREN JARDUERAK GARATU ETA GAUZATZEARI DAGOKIONEZ

3.1. Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromiso nagusiak:

- Hitzarmen honen xede diren obrak eta jarduketak egiteko proiektuak gauzatzea eta behin betiko onartzea.

- Proiektatutako jarduketei dagozkien obrak eta laguntza teknikoak finantzatu, lizitatu, kontratatu, gauzatu, likidatu eta zuzentzea, onartutako proiektuen arabera eta aplikatzekoa den kontratazio publikoa arautzen duen araudiari jarraikiz, bai berak zuzenean, bai bitarteko propioari aginduta.

- Bilboko itsasadarraren ibilguren gainean, Erandio eta Barakaldo udalerrien artean, zubi mugigarri berria eraikitzeari lotutako ur-lamina okupatzeko dagokion gaikuntza-titulua emateko eskatzea.

3.2. Erandioko Udalaren konpromiso nagusiak:

- Beharrezko kasuetan eta ahalik eta azkarren, aurreikusitako jarduketak gauzatzeko beharrezkoak diren obra-lizentziak, jarduera-lizentziak edo bere eskumeneko beste edozein hirigintza-lizentzia edo baimen izapidetzea.

- Portuko jabari publikoa okupatzeko dagokion gaikuntza-titulua emateko eskatzea, BI-711 errepidea (Bilboko itsasadarraren gaineko hegalkin etenak) birmoldatzearen eta eraldatzearen ondorioz Erandion izan daitezkeen ur-laminen okupazioei lotuta.

TERCERA.- COMPROMISOS DE LAS PARTES EN RELACIÓN AL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LAS ACTUACIONES OBJETO DEL CONVENIO

3.1. Compromisos principales de la Diputación Foral de Bizkaia:

- Elaboración y aprobación definitiva de los proyectos de construcción de las diversas obras y actuaciones objeto del presente Convenio.

- Financiación, licitación, contratación, ejecución, liquidación y dirección de las obras y asistencias técnicas correspondientes a las actuaciones proyectadas, de acuerdo con los proyectos aprobados y con sujeción a la normativa que regula la contratación pública de aplicación, bien por sí misma o mediante encargo a medio propio.

- Solicitar el otorgamiento del correspondiente título habilitante para la ocupación de la lámina de agua asociada a la construcción del nuevo puente-móvil sobre el cauce de la Ría de Bilbao, entre los términos municipales de Erandio y Barakaldo.

3.2. Compromisos principales del Ayuntamiento de Erandio:

- Tramitación, en los casos necesarios y a la mayor brevedad posible, de las licencias de obra, de actividad o cuantas otras licencias urbanísticas o autorizaciones de su competencia resultasen necesarias para la ejecución de las actuaciones previstas.

- Solicitar el otorgamiento del correspondiente título habilitante para la ocupación de dominio público portuario asociado a las eventuales ocupaciones de lámina de agua derivadas de la remodelación y transformación de la carretera BI-711 (voladizos discontinuos sobre la Ría de Bilbao) a su paso por el municipio de Erandio.

- Proiektatutako obrak egiteko ardura duen erakundearen esku jartzea obrek eragiten dieten udal-titulartasuneko lurzorua, baita titulartasun pribatuko lurzorua kudeatu eta lortzea ere, aldi baterako nahiz betiko.
- Obrek eragindako zerbitzuetan eta instalazioetan beharrezko aldaketak eta/edo kudeaketak egitea.
- BI-711 errepidearen trazadurari dagozkion lurzoruen titulartasunaren transferentzia onartzea, Erandio udalerraren parean, hitzarmen honetan adierazitako birmoldaketako obrak onartu ondoren eta udalak egintza horrekin berariazko adostasuna adierazi ondoren, esku-hartze horri dagozkion elementu eta instalazio guztiekin. Une horretatik aurrera, bidea udal ondasunen inbentarioan sartuko da, eta tokiko administrazioak hartuko ditu bere gain titulartasun horri dagozkion kontserbaziorako eta ustiapenerako betebeharrak.
- Poner a disposición del organismo encargado de la ejecución de las obras proyectadas aquellos suelos de titularidad municipal que resulten afectados por las mismas, así como la gestión y obtención de los suelos de titularidad privada, ya lo sean con carácter temporal o permanente.
- Realizar las modificaciones y/o gestiones necesarias de servicios e instalaciones afectadas por las obras.
- Aceptar la transferencia de titularidad de los suelos correspondientes al trazado de la carretera BI-711 a su paso por el municipio de Erandio, una vez se proceda a la recepción de las obras de su remodelación señaladas en el presente Convenio, previa conformidad municipal expresa con dicho acto, con todos los elementos e instalaciones propios a dicha intervención. A partir de ese momento la vía se integrará en el inventario de bienes municipales y se asumirán por la Administración local las obligaciones de conservación, explotación y demás inherentes a dicha titularidad.

Lagapena administrazio-aktaren bidez gauzatuko da. Bertan behar besteko zehaztasunez jasoko dira udal ondarean sartuko diren elementuak, eta akta horri erantsiko zaizkio burutzapenaren eta kontserbazioaren gaineko egoera egokia egiaztatzen duten dokumentu teknikoak.

### 3.3. Bilboko Portuko Agintaritzaren konpromiso nagusiak:

- Portuko jabari publikoan egingo diren obrak baimentzea, horretarako baldintza tekniko egokiak finkatuz, egingarritasun eta segurtasun handieneko irizpideei jarraituta.

Zehazki, baimena eta onespina eman beharko dizkio Erandio eta Barakaldo udalerrien artean aurreikusitako ibilgailu-zubiari edo oinezkoen

La cesión se articulará a través de acta administrativa en la que se detallarán con la suficiente precisión los elementos que pasan a integrar el patrimonio municipal, y a la que se adjuntarán los documentos técnicos que acrediten su correcto estado de ejecución y conservación.

### 3.3. Compromisos principales de la Autoridad Portuaria de Bilbao:

- Autorizar las obras que vayan a desarrollarse en el dominio público portuario, fijando al respecto las condiciones técnicas oportunas, bajo criterios de máxima factibilidad y seguridad.

En particular, le corresponderá autorizar y dar la conformidad al proyecto constructivo de las obras vinculadas al puente-móvil o pasarela ciclopeatonal



bizikleta-pasabideari lotutako obren eraikuntza proiektuari, behin betiko onartu baino lehen. Izan ere, jarduketa horrek zuzeneko eragina izango du portuko jardueran eta trafikoan, eta behar diren eskakizun operatiboak, funtzionalak eta/edo eraikuntzakoak zehaztuko ditu, besteak beste, merkataritza-ontziak nabigazio-kanaletik ibiliko direla eta kaltetutako erriberako hormen egonkortasuna eta egiturazko segurtasuna bermatzeko.

- Hitzarmen honi lotutako obrak eta jarduketak gauzatzeko behar diren espazioak ematea, dagozkion gaitzuntza-tituluak izapidetu eta lortzeari kalterik egin gabe.

- Portuko jabari publikoa okupatzeko titulu egokiak izapidetu eta ematea, aurrez adierazitakoarekin bat etorritik, beharrezkoak baitira programatutako jarduerak gauzatzeko, legez posible den gehieneko emakida-epea aplikatuta. Horretarako alde aurreko txostenak eskatuko zaizkie administrazio eskudunei, honako hitzarmen honetan aurreikusitako jarduketari dagokienez, bereziki Bilboko Itsas Kapitaintzari eta URA-Uraren Euskal Agentziari, euren eskumenak kontuan hartuta betiere, baita, hala badagokio, ingurumenaren arloan beharrezkoak diren beste batzuk ere.

- Hitzarmen honen xedearekin lotuta identifikatutako jarduketak egingo diren ibaiertzeko hormen egoera berrikustea, jarduketa horien proiektua onartu eta gauzatu aurretik, egungo bide-erabilera kontuan hartuta. Edozelan ere, hitzarmen honen xedea garatzeko programatutako obren proiektua eta egikaritzea aipatutako ur-bazterreko hormen egoerara egokitu beharko dira, haien egiturazko segurtasuna babestuz, hegalkinekin jarduten den eremuan.

prevista entre los municipios de Erandio y Barakaldo antes de su aprobación definitiva, al tener dicha actuación directa incidencia en la actividad y el tráfico portuario, determinando los requerimientos operativos, funcionales y/o constructivos que resulten necesarios para, entre otros aspectos, garantizar el tránsito de buques mercantes por el canal de navegación y la estabilidad y seguridad estructural de los muros de ribera afectados.

- Aportar los espacios necesarios para la ejecución de las obras y actuaciones vinculadas con el presente Convenio, sin perjuicio de la tramitación y obtención de los respectivos títulos habilitantes.

- Tramitar y otorgar los correspondientes títulos de ocupación del dominio público portuario, de conformidad con lo indicado previamente, necesarios para la ejecución de las actuaciones programadas, con aplicación del plazo concesional máximo legalmente posible, interesando al respecto los oportunos informes previos ante las diferentes Administraciones competentes en relación con las actuaciones previstas en el presente Convenio, singularmente de la Capitanía Marítima de Bilbao y de URA-Agencia Vasca del Agua en atención a sus recíprocas competencias, así como, en su caso, cuantos otros se precisen dentro de la tramitación medioambiental necesaria.

- Revisión del estado de los muros de ribera sobre los que se desarrollarán las actuaciones identificadas en relación al objeto del presente Convenio, con anterioridad a la aprobación del proyecto y la ejecución de dichas actuaciones teniendo en cuenta el uso viario actual. En todo caso, el proyecto y la ejecución de las obras programadas en desarrollo del objeto del presente Convenio deberán acomodarse al estado de los referidos muros de ribera, resguardando su seguridad estructural, en la zona en la que se actúe con voladizos.

3.4. Hitzarmen honen helburuak betetze aldera, alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute, leialki eta formalki, dokumentu honen arabera berariaz beren gain hartzen dituzten konpromisoak garatu, izapidetu, finantzatu edo gauzatzeko, dokumentu honetan ezarritako helburuen arabera garatzen den irismena izanik.

Horretarako, esku hartzen duten administrazioek ondareari, kontratuari, emakidari, hirigintzari edo sektoreko beste edozein gairi buruz beharrezkoak diren izapideak sustatu eta izapidetuko dituzte, nork bere eskumenen esparruan eta aplikatzekoa den araudiari lotuta, hitzarmen honetan ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko.

#### LAUGARRENA.- HITZARMEN HONETAN PROGRAMATUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA ETA BURUTZEKO EPEAK

4.1. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio hitzarmen honen xede diren obrak finantzatzea, baimendutako aurrekontu-kredituaren mugaraino. Obren guztizko zenbateko zenbatetsia HOGETA HAMABOST MILA EURO da (35.000.000 €), honela banatuta:

2021. 20.000.000 €

2022. 15.000.000 €

Finantzatu beharreko kontzeptu guztiak ditu barne kopuru horrek.

4.2. Aurreko lerrokadaren ondoriozko konpromiso ekonomikoari aurre egiteko, aurrekontu-kreditu egokiak eta nahikoak onartuta daude dokumentu hau sinatu aurretik. Kredituok obren aurrekontu-partiden kargura izango dira, eta 2021eko eta 2022ko ekitaldietan aurrekontu-zuzkidura egongo da honako aurrekontu-partida honen kargura: 74117 Ekonomikoa, 453113 Programa, Zentro 1003

3.4. Con la finalidad de dar cumplimiento a los objetivos de este Convenio, las partes firmantes se obligan, leal y formalmente, a desarrollar, tramitar, financiar o ejecutar los respectivos compromisos que en virtud del presente documento expresamente asumen, con el alcance que en el mismo se desarrolla en orden a los objetivos pretendidos.

A tal efecto, las Administraciones intervinientes promoverán y tramitarán hasta su aprobación, en el ámbito de sus respectivas competencias y con sujeción a la normativa de aplicación, las tramitaciones necesarias en materia patrimonial, contractual, concesional, urbanística o cualesquiera otras de carácter sectorial a los efectos de garantizar el cumplimiento de las finalidades previstas en el presente Convenio.

#### CUARTA.- FINANCIACIÓN Y PLAZOS DE EJECUCIÓN DE LAS ACTUACIONES PROGRAMADAS EN EL PRESENTE CONVENIO

4.1. Corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia la financiación de las obras objeto del presente Convenio hasta el límite del crédito presupuestario autorizado. El importe total estimado de las obras asciende a TREINTA Y CINCO MILLONES DE EUROS (35.000.000 €), distribuidas en las siguientes anualidades:

2021. 20.000.000 €

2022. 15.000.000 €

Esta cantidad incluye todos los conceptos objeto de financiación.

4.2. En orden a hacer frente al compromiso económico derivado de los párrafos precedentes, están aprobados, con anterioridad a la suscripción del presente documento, los créditos presupuestarios adecuados y suficientes, que serán con cargo a las partidas presupuestarias de las obras, existiendo consignación presupuestaria en el/los ejercicio/s 2021 y 2022 con cargo a la siguiente Partida

Kudeatzailea, 2007/0034 PEP.

Presupuestaria: Económico 74117, Programa 453113 Centro Gestor1003, PEP 2007/0034.

Hitzarmena gauzatzearen ondoriozko gastu egozgarritzat hartuko dira (alderdien finantza-ekarpenekin finantza daitezkeenak) indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatuta daudenak, hitzarmena likidatzen den egunean ordainduta daudenak, beharrezkoak direnak eta zalantzarik gabe hitzarmenaren xedearen izaerari eta garapen normalari erantzuten dietenak.

Se considerarán gastos imputables derivados de la ejecución del Convenio, susceptibles de ser financiados por las aportaciones financieras de las partes, aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, están pagados a la fecha de liquidación del Convenio, son necesarios y responden de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del objeto del Convenio.

4.3. Obrak hasteko aurreikusitako gutxi gorabeherako data 2022ko azaroa izango da, eta obrak hasi eta 28 hilabeteko epean amaitu eta likidatuko dira.

4.3. La fecha prevista de forma estimativa para el inicio de las obras será noviembre de 2022 y su finalización y liquidación se prevé en el plazo de 28 meses desde la iniciación de las mismas.

#### BOSGARRENA.- ERAGINPEKO ESPAZIOAK ETA AURREIKUSITAKO JARDUKETAK

#### QUINTA.- ESPACIOS AFECTADOS Y ACTUACIONES PREVISTAS

5.1. Hitzarmen honi lotutako obrak eta jarduketak gaur egun izaera juridiko desberdina duten lurzoru eta espazioetan gauzatuko dira; izan ere, BI-711 errepidea erabilera publikoko bidea da, eta ur-lamina okupatzea dakarten espazioak portuko jabari publikoko ondasunak dira.

5.1. Las obras y actuaciones vinculadas con el presente Convenio se materializarán sobre suelos y espacios actualmente de distinta naturaleza jurídica, en tanto que la carretera BI-711 tiene la condición de vial de uso público y los espacios que conlleven la ocupación de lámina de agua tienen la condición de bienes de dominio público portuario.

5.2. Ildo horretatik, portuko jabari publikoko eremuak okupatzea dakarten obrei eta jarduketei dagokienez, bereziki Bilboko itsasadarraren ibilguaren gainean zubi mugigarri berria eraikitzearekin lotutako ur-lamina okupatzearekin lotutakoei dagokienez, edo BI-711 errepidea birmoldatzearen eta eraldatzearen ondoriozkoei dagokienez, Bilboko itsasadarraren gainean aurreikusitako hegalkin etenak direla-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Erandioko Udalak hiru kasu horiek hartuko dituzte beren gain. Hitzarmen honen hirugarren klausulan hartutako konpromisoen arabera, Bilboko Portuko Agintaritzari eskatuko diote gaikuntza-titulua ematea, eta eskatzaileek beren gain

5.2. En este sentido, respecto de las obras y actuaciones que conlleven la ocupación de espacios de dominio público portuario, singularmente las vinculadas con la ocupación de la lámina de agua asociada a la construcción del nuevo puente-móvil sobre el cauce de la Ría de Bilbao o las derivadas de la remodelación y transformación de la carretera BI-711 en relación a los voladizos discontinuos previstos sobre la Ría de Bilbao, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Erandio, según los diversos casos en función de los respectivos compromisos asumidos en la cláusula tercera del presente Convenio, procederán a solicitar el otorgamiento del

hartuko dituzte ondasun horiek kontserbatzeko eta mantentzeko betebeharrak, haietarako sarbide publikoa eta segurua eta adierazitako helbururako erabilera bermatu ahal izateko moduan.

5.3. Bestalde, BI-711 errepidea Erandion birmoldatzeko eta eraldatzeko lanak amaitu ondoren, Erandioko Udalak bere gain hartuko du, zuzenean eta berehala, errepide horren kudeaketaren titulartasuna, kontserbazioa, mantentzea eta erabateko erantzukizuna.

Horretarako, erakunde esleipendunak obra horiek onartzen dituenean, Erandioko Udalaren eta Bilboko Portu Agintaritzaren arteko transferentzia-akta bat sinatuko da hurrengo egunean, eta, horren ondorioz, Erandioko udalerritik igarotzen den BI-711 errepidearen zatiri dagozkion afektaziorik gabeko portu-ondasunen jabari osoa lagako zaio doan, gutxi gorabehera 3.552 metro, hain zuzen ere ondasun horiek desafektatzeko ministro-aginduan eta hirigintzako plangintzan ibilgailuentzako eta oinezkoentzako kale/zeharbide gisa ezarritako legezko bidea eta xedea izan dezaten. Hartara, une horretatik aurrera ondasun horien ondarearen titulartasuna, kontserbazioa, mantentzea eta kudeaketaren erabateko erantzukizuna hartuko ditu bere gain.

Udalak BI-711 errepidea birmoldatzeko obrak onartzearekin ados egon daitezen, aipaturiko harrera-egintza hori formalizatu aurretik, erakunde esleipendunak entzunaldirako izapidea eman beharko dio Erandioko Udalari, gutxienez hamabost eguneko epean, egoki iritzitako oharrak edo eragozpenak egin ditzan, hain zuzen ere kontuan hartzeko. Baldin eta parte hartzen duten erakundeen artean desadostasunik badago, hitzarmen honetan ezarritako

correspondiente título habilitante ante la Autoridad Portuaria de Bilbao, asumiendo las solicitantes las obligaciones de conservación y mantenimiento de dichos bienes de modo que pueda garantizarse el acceso público y seguro a los mismos y su utilización para el destino indicado.

5.3. Por su parte, una vez se ultime la remodelación y transformación de la carretera BI-711 a su paso por el municipio de Erandio en ejecución de las previsiones del presente Convenio, el Ayuntamiento de Erandio asumirá, de manera directa e inmediata, la titularidad, conservación, mantenimiento y plena responsabilidad de la gestión de la misma.

A tal efecto, una vez se proceda por la entidad adjudicataria a la recepción de dichas obras, se suscribirá al día siguiente un Acta de transferencia de la carretera entre el Ayuntamiento de Erandio y la Autoridad Portuaria de Bilbao, como resultado de la cual se cederá a aquél, a título gratuito, el pleno dominio de los bienes portuarios desafectados correspondientes al tramo de la carretera BI-711 que discurre por el municipio de Erandio, con una longitud total aproximada de 3.552 metros, con el fin de dar a los mismos el curso legal y destino previsto en la orden ministerial de desafectación de la misma y en el planeamiento urbanístico como calle/travesía municipal para uso de vialidad rodada y peatonal, asumiendo desde ese momento la titularidad patrimonial, conservación, mantenimiento y plena responsabilidad de la gestión de los citados bienes.

Al objeto de articular la conformidad municipal con la recepción de las obras de remodelación de la carretera BI-711, con carácter previo a la formalización de dicho acto de recepción deberá concederse al Ayuntamiento de Erandio, por parte de la entidad adjudicataria, un trámite de audiencia por un plazo mínimo de quince días al objeto de que pueda formular las observaciones, consideraciones o reparos que estimen pertinentes en orden a su toma en consideración. En caso de

Jarraipen eta Kontrol Batzordearen barruan ebatziko dira.

Era berean, obren garapen eta gauzatze materiala dela eta, lankidetzarako eta koordinaziorako mekanismo egokiak zehaztuko dira, udal zerbitzu teknikoek obren kontrolean eta jarraipenean esku hartu ahal izan dezaten.

5.4. Bizkaiko Foru Aldundiak, hitzarmen honetan aurreikusitako BI-711 errepidea birmoldatzeko obren erakunde esleipenduna den aldetik, konpromisoa hartzen du obrak jaso ondorengo bermealdian Erandioko Udalak akatsengatik, hutsuneengatik edo titulartasuna laga ondoren antzeman daitezkeen bestelako inguruabarrengatik egin ditzakeen erreklamazioei erantzuteko. Konpromiso horrek esan nahi du obrak kontratistari helarazi behar zaizkiola formalki eta ahalik eta lasterren, behar bezala zuzen ditzan, eta, esleitutako obra-kontratuaren eta aplikatu beharreko legeriaren ondoriozko araubidearen arabera egiten diren errekerimenduak betetzen ez badira, hari aurre egin beharko zaiola, udalaren jarrera defendatzeko.

SEIGARRENA.- ALDERDIEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak hitzarmen hau suntsiaraztea ekarriko du, hamaikagarren klausulan ezarritako ondorioekin; edozelan ere, egon daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENA ETA HARTUTAKO KONPROMISOAK GAUZATZEKO JARRAIPIEN, ZAINTZA ETA KONTROLERAKO MEKANISMOAK

discrepancias al respecto entre las entidades intervinientes, las mismas se resolverán en el seno de la Comisión de Seguimiento y Control establecida en el presente Convenio.

Asimismo, con motivo del desarrollo y ejecución material de las obras se definirán los mecanismos de colaboración y coordinación oportunos en orden a posibilitar la intervención de los servicios técnicos municipales en el control y seguimiento de las mismas.

5.4. La Diputación Foral de Bizkaia, como entidad adjudicataria de las obras de remodelación de la carretera BI-711 previstas en el presente Convenio, se compromete a atender durante el período de garantía de las mismas una vez recepcionadas las obras, las posibles reclamaciones que por parte del Ayuntamiento de Erandio se realicen como consecuencia de deficiencias, vicios u otras circunstancias que pudieran advertirse tras la cesión de su titularidad. Este compromiso supone la exigencia de trasladar las mismas al contratista formalmente y a la mayor brevedad para su debida corrección, así como actuar frente al mismo en caso de incumplimiento de los requerimientos que se efectúen conforme al régimen que derive del contrato de obras adjudicado y de la legislación aplicable, en defensa de la posición municipal.

SEXTA.- CONSECUENCIAS POR INCUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDOS POR LAS PARTES

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en los apartados precedentes dará lugar a la resolución del presente Convenio con los efectos previstos en su cláusula undécima, sin perjuicio, en todo caso, de la exigencia de las responsabilidades a que hubiera lugar.

SÉPTIMA.- MECANISMOS DE SEGUIMIENTO, VIGILANCIA Y CONTROL DE EJECUCIÓN DEL CONVENIO Y DE LOS COMPROMISOS

## ADQUIRIDOS

7.1. Alde sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoak eta betebeharrak eta ordenamendu juridikoak ezarritakoak betetzeko, hitzartutako aurreikuspenak eta konpromisoak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, horiek guztiak zorrotz betetzeko neurriak proposatzeko, honako hitzarmen honen jarraipena egiteko, garatzeko, kontrolatzeko eta informatzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak koordinatzeko, eta hitzarmenaren aplikazioaren inguruan sor daitezkeen eztabaida guztiak konpontzeko, bi administrazio sinatzailek osatutako kontrol batzordea sortzea adostu dute alderdiek.

7.2. Jarraipen eta Kontrol Batzordeko kide izango dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako zuzendari nagusia eta Bide Sarearen Kudeaketako zuzendariorde nagusia.
- Bilboko Portuko Agintaritzaren aldetik, zuzendaria eta idazkari nagusia.
- Erandioko Udaletik, Hirigintzako zinegotzia eta Lurralde Garapenerako ataleko zuzendaria

7.3. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta edozein alderdik proposatuta, batzordeak bilera egingo du lanak ondo joateko beharrezkoa den guztietan, eta, gutxienez, hiru hilean behin. Bilerak aktan jasoko dira kasu bakoitzean.

Lehenengo bilkuran batzordeburua eta batzordeko idazkaria hautatuko dira kideen artean. Batzordeburuak, berdinketa gertatuz gero, kalitateko

7.1. A los efectos de dar cumplimiento a los compromisos y obligaciones asumidas por las partes firmantes y las impuestas por el ordenamiento jurídico, asegurar la observancia de la correcta ejecución de las previsiones y compromisos estipulados, la proposición de medidas encaminadas a su estricto cumplimiento, la coordinación de todas las actuaciones necesarias para el seguimiento, desarrollo, control e información del presente Convenio, así como para la resolución de cuantas controversias pudieran suscitarse respecto de su aplicación, las partes acuerdan la creación de una Comisión de Seguimiento y Control compuesta por dos representantes de cada una de las Administraciones firmantes del Convenio.

7.2. Serán miembros de la citada Comisión de Seguimiento y Control:

- Por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, el Director General de Innovación y Gestión Viaria y el Subdirector General de Gestión de la Red Viaria.
- Por parte de la Autoridad Portuaria de Bilbao, el Director y el Secretario General.
- Por parte del Ayuntamiento de Erandio, el/la Concejala de Urbanismo y el/la Director-a del área municipal de Desarrollo Territorial

7.3. Durante la vigencia del Convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la Comisión se reunirá previa convocatoria siempre que lo requiera la buena marcha de los trabajos y, como mínimo, con una periodicidad trimestral, formalizándose sus reuniones en acta en cada caso.

En la primera sesión se elegirá entre sus miembros una persona que ostente la presidencia y una persona que ostente la secretaría de la comisión. La

botoa izango du.

7.4. Batzordea balio osoz eratzeko behar den quoruma kideen gehiengoarena izango da, eta erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Hala eta guztiz ere, aho batez hartu beharko dira egin beharreko jarduerak zehazten dituzten plan, proiektu edo dokumentu teknikoek dagokienez parte hartzen duten alderdien oniritziarekin zerikusia duten erabakiak.

7.5. Hitzarmen honetan Jarraipen Batzordeari buruz berariaz ezarri ez den guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren 3. atalean kide anitzeko organoei buruz ezarritako araubidea aplikatuko da.

#### ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA ALDATZEKO ARAUBIDEA

Hitzarmen hau aldatu ahal izango da sinatzaileek hala adosten badute, hitzarmenaren xedea hobeto betetzeko beharrezkoa denean. Horretarako, hitzarmena onartzeko ezarritako baldintza berberak bete beharko dira.

#### BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

9.1. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuz, hitzarmen honek ondorioak izango ditu Estatuko Sektore Publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikokoan inskribatzen denean, eta indarrean egongo da bertan ezarritako jarduketak eta esku-hartze guztiak amaitu arte.

9.2. Edozelan ere, aipatutako 40/2015 Legearen 49. artikuluekin bat etorriz, indarraldi hori ezin izango

presidencia, en caso de empate, tendrá voto de calidad.

7.4. El quórum necesario para la válida constitución de la Comisión será el de mayoría de sus miembros, adoptándose sus acuerdos por mayoría de votos. Ello no obstante, será necesaria la unanimidad para la adopción de acuerdos relacionados con el visto bueno de las partes intervinientes respecto de los planes, proyectos o documentos técnicos que definan las actuaciones a realizar.

7.5. En lo no previsto expresamente en el presente Convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II, del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

#### OCTAVA.- RÉGIMEN DE MODIFICACIÓN DEL CONVENIO

El presente Convenio podrá modificarse por mutuo acuerdo de sus firmantes cuando resulte necesario para la mejor realización de su objeto, requiriéndose el cumplimiento de los mismos requisitos estipulados para su adopción.

#### NOVENA.- PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO

9.1. En aplicación de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el presente Convenio producirá efectos una vez sea inscrito en el Registro Electrónico Estatal de Órganos e Instrumentos de Cooperación del Sector Público Estatal, y permanecerá en vigor hasta la culminación de todas las actuaciones e intervenciones previstas en el mismo.

9.2. En todo caso, de conformidad con el artículo 49 de la citada Ley 40/2015, este plazo de vigencia no

da lau urtetik gorakoa izan, eta hitzarmenaren sinatzaileek edozein unetan, epe hori amaitu aurretik, aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea, gehienez ere beste lau urtez. Horretarako, baimena emateko edo azkentzeko jarraitutako prozedura berari jarraituko zaio.

9.3. Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere eskumenei uko egitera edo horiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorioz hartzen dituzten konpromisoei dagozkien erantzukizunak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

#### HAMARGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA

10.1. Hitzarmen hau bere xede diren jarduerak erabat betetzen direnean edo suntsiarazten denean iraungiko da.

10.2. Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak honako hauek izango dira:

- Indarraldia amaitzea hitzarmena luzatzeko erabakirik hartu gabe.

- Sinatzaileek aho batez hala erabakitzea.

- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea. Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duenari, epe jakin batean bete ditzan bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan jasotako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, igorri zuenak beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko dio hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsitutzat joko da.

- Deuseztasuna deklaratzeko erabaki judiziala.

podrá ser superior a cuatro años, pudiendo los firmantes del Convenio en cualquier momento, antes de la finalización del referido plazo, acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales, observándose para ello el mismo procedimiento seguido para su autorización, o su extinción.

9.3. El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

#### DÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO

10.1. El presente Convenio se extinguirá por el íntegro cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por su resolución.

10.2. Serán causas de resolución de este Convenio las siguientes:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.

- El acuerdo unánime de los firmantes.

- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes. En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a la otra parte firmante la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el Convenio.

- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.



- Helburua lortzeko ezintasuna.

- La imposibilidad de alcanzar su fin.

- Hitzarmen honetan edo legeetan ezarritako beste edozein arrazoi.

- Por cualquier otra causa prevista en el presente Convenio o en las leyes.

#### HAMAIKAGARRENA.- ONDORIOAK

#### EBAZPENAREN

#### UNDÉCIMA.- EFECTOS DE LA RESOLUCIÓN

11.1. Aurreko klausulan ezarritako suntsiarazteko arrazoiren batengatik hitzarmena azkentzen bada, likidazio-fasea hasiko da, lortu nahi diren helburuen arabera.

11.1. Extinguido el Convenio por cualquiera de las causas de resolución previstas en la cláusula anterior, se iniciará la fase de liquidación del mismo conforme a las finalidades perseguidas.

11.2. Gauzatzen ari diren jarduketak badaude, alderdiek, Hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak proposatuta, abian dauden eta egokitzat jotzen dituzten jarduerekin jarraitzea eta amaitzea erabaki ahal izango dute, eta amaitzeko epe luzaezin bat ezarri ahal izango dute. Epea igarotakoan, jardunen likidazioa egin beharko da.

11.2. Si existiesen actuaciones en curso de ejecución, las partes, a propuesta de la Comisión de Seguimiento y Control del Convenio, podrán acordar la continuación y finalización de las actuaciones en curso que consideren oportunas, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización, transcurrido el cual deberá realizarse la liquidación de las mismas.

11.3. Dagokion likidazioan, alderdien betebeharrak eta ordaintzeko edo itzultzeko modua kuantifikatuko dira, dagokionaren eta betetzeko epearen arabera.

11.3. En la correspondiente liquidación quedarán cuantificadas las respectivas obligaciones de las partes y la forma de pago o reintegro, según proceda y periodo de cumplimiento.

#### - ALDERDIEN LANKIDETZA-BETEBEHARRA

#### DUODÉCIMA.- OBLIGACIÓN DE COLABORACIÓN DE LAS PARTES

Aldeek konpromisoa hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiak egin ditzakeen kontrol-lanetan laguntzeko.

Las partes se comprometen a colaborar en las funciones de control que a tales efectos pudiera llevar a cabo la Diputación Foral de Bizkaia.

#### HAMAHIRUGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

#### DECIMOTERCERA.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen), Datu Pertsonalak

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, en la Ley

Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa betetzeko.

HAMALAU GARRENA.- GARDENTASUNA ETA HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIRA BIDALTZEA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak hitzarmen hau onartu ondoren, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 9.1.e) artikuluan xedatutakoari jarraituz, Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasun-atarian argitaratuko da.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 53. artikuluan xedatutakoa betetzeko, hitzarmen hau sinatu eta hurrengo hiru (3) hilabeteen barruan elektronikoki igorri beharko zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

HAMABOS GARRENA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

Esku hartzen duten alderdiek genero-ikuspegia txertatuko dute hitzarmen honekin lotuta egin behar dituzten jarduketak guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

HAMASEI GARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

16.1. Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, interpretatzeko eta garatzeko, hitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoa bete beharko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás normativa que resulte de aplicación.

DECIMOCUARTA.- TRANSPARENCIA Y REMISIÓN AL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS

Una vez aprobado el presente Convenio por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, conforme con lo dispuesto en el artículo 9.1.e), en relación con el artículo 3.3, de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, el mismo será publicado en el portal de transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

Para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 53 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público, dentro de los tres (3) meses siguientes a la suscripción del presente convenio deberá remitirse electrónicamente al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

DECIMOQUINTA.- IGUALDAD MUJERES Y HOMBRES

Las partes intervinientes incluirán la perspectiva de género en todas las actuaciones que les corresponda realizar en relación con el presente Convenio, conforme con lo establecido en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres.

DECIMOSEXTA.- RÉGIMEN JURÍDICO

16.1. El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico aplicable a los convenios, de conformidad con lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector

Público.

16.2. Hitzarmen honek betetzen ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 46. artikuluan ezarritako baldintzak.

16.3. Hitzarmena garatu eta gauzatzean alderdien artean sortzen diren auziak ezin badira ebatzi zazpigarren klausulan ezarritako Jarraipen eta Kontrol Batzordean, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela eta onartzen dutela erakusteko, parte-hartzaileek hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILEKO FORU DIPUTATUA/DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA,

Sin./Fdo.: Imanol Pradales Gil.

ERANDIOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA,

Sin./Fdo.: Aitziber Oliban Gutiérrez.

16.2. El presente Convenio cumple con los requisitos establecidos en el artículo 46 del Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

16.3. Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del Convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la cláusula séptima, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Y en prueba de conformidad y aceptación de cuanto antecede, los intervinientes firman el presente documento por triplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en su encabezamiento.

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAKO PRESIDENTEA / EL PRESIDENTE DE LA AUTORIDAD PORTUARIA DE BILBAO,

Sin./Fdo.: Ricardo Barkala Zumelzu.